


Ikaskide taldeak



1998/1999 ETA 1999/2000 IKASTURTEAK

HUHEZIKO IRAKASLE TALDE BAT

AURKIBIDEA

I. SARRERA

II. IKASKIDE TALDEEN OINARRI TEORIKOAK

II.1. JUSTIFIKAZIOA

II.2. EZAUGARRIAK ETA BALDINTZAK

II.3. TEKNIKAK

II.4. EBALUAZIOA

III. ADIBIDEAK ETA HAUSNARKETA

IV. ARTIKULU-BILDUMA

V. BIBLIOGRAFIA

VI. ERANSKINAK

I. SARRERA

Hona hemen Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakasle talde baten lana. Lan hau “Taldea Kooperatiboak Hezkuntzan” izendatu genuen mintegiko fruitua da, 98/99 - 99/00 ikasturteetan garatu duguna. Abiapuntua zera izan da: gure ikasleekin **taldean lan egiteko gaitasuna** lantzea; gure asmoa honen inguruan egon zitekeen estrategia metodologikoetan sakontzea izan da.

Eta kooperazioaren balorea gure identitate-ikurretako bat izanik, sakontzeko aukeratu dugun eremua **talde kooperatiboan lan egitea** izan da.

Lan honetan, ildo horretatik, honako puntu hauek islatu ditugu:

1.- Erabilitako oinarri teorikoen laburpena, alderdi nagusiak hauek direla:

- 1.1.- Ikaskide taldeen justifikazioa
- 1.2.- Ikaskide taldeen ezaugarriak
- 1.3.- Gelan Ikaskide taldeak garatzeko teknikak
- 1.4.- Ikaskide taldeen ebaluazioa

2.- Horrelako taldeei buruzko esperientziak

3.- Gai honetaz erabilitako artikulak

4.- Bibliografia

Espero dugu esku artean duzun emaitza lagungarria izatea gelan lan kooperatiboa garatu nahi duen irakaslearendako, oinarrizko gida bat.


Mintegi honetan partehartu dute ondokoek:

- HUEN: Luxio Ugarte, Iñigo Ramirez de Okariz, Jon Sarasua
- IRAKASLETZA: Mariam Bilbatua, Xabier Arregi, Marian Iriondo, Maite Garzia.
- AHOLKULARIA: Fred Freundlich (HUEN)

Dokumentu honek bi euskarritan eskuratu ahal izango duzue:

- Euskarri informatikoa: “Gure Gauzak” artxiboan
- Paperean: Bibliotekan ale bat.

MAPA KONTZEPTUALA: IKASKETA KOOPERATIBOA



II. OINARRI TEORIKOAK

II.1. JUSTIFIKAZIOA

1. Partehartzea eta talde-lana baloretzat

Zer esan nahi dute jokabide horiek?

Sakonean pertsona ulertzeko dugun moduan, pertsona gizabanako komunitario moduan ulertzen dugula, hots, komunitatearen zerbitzuan iristen dela pertsona bere osotasunera (ikuspegi indibidualista liberalean ez bezala; eta ez dezagun ahaztu azken hau dela nagusi faktikoki edota benetan gure une honetako sistema sozioekonomikoan).

Une honetan, denok dakigunez, partehartzea bultzatzeko haizeak dabilta enpresan. Hala ere, badira desberdintasunak parte hartzean:

- Partehartzea ikuspegi neoliberaletik: Partehartzearen ikuspegi instrumentala (enpresaren benetako izaera ez-kooperatiboaren barruan ulertu).
- Partehartzea ikuspegi kooperatibotik. Partehartzea berezko eta oinarrizko balio moduan.

Gure ikuspegitik, beraz, partehartzea ez da efikazia kontua soilik. Hori ere bai, baina printzipio moduan maila sakonagoko balioa erasten diogu.

Horren arabera, Ikaskide Taldeen aldeko apustua egitea koherentea zaigu hainbat arrazoigatik:

- Lankidetzaren gure printzipio eta balioa izanik koherentea delako maila guztietan berea aplikatzea, zuzenki 'eraginkorra' izan nahiz ez.

- Ikasleak biharko lan profesionalean lankidetzarako prestatzea helburutzat dugula, prestakuntzarik onena ikasketak ere lankidetzan egitea delako.
- Ikasketa prozesuan txertatu nahi ditugun hainbat gaitasun ikastaldean bidez lantzen ditugulako.
- Oro har ikasketa prozesuko eduki eta gaitasunentzat eraginkorra dela uste dugulako.

Hasteko, bi argibide:

- Ikastaldean esperientzia ez da berria, ibilbide luzea duen ikuspegi metodologikoa da.
- Batez ere maila ez-unibertsitarioan garatu da orain arte esperientzia hau.

2. Izendapenaz: ‘Ikaskide Taldeak’

Partehartzearen barruan, arlo oso zehatz bati buruz ariko gara: ikasketa prozesuko partehartzeaz. Bi aukera egoki daude euskal-senez talde hauek izendatzeko: *Ikastalde Kooperatiboak* (ikasleekin erabiltzeko, beharbada, laburrago, *Ikastaldeak*), edo bestela *Ikaskide Taldeak* (*lankide* hitza, gure kasuan, *ikaskide* bihurtuz).

Gure aukera *Ikaskide Taldeak* izendatzea izan da.

Daukagun “printzipiozko” jarrera positibo horren ondoren, ikus dezagun hainbat autorek ikaskide taldeei ikusten dizkieten aspektu positiboak eta aspektu negatiboak.

3. Ikaskide Taldeen oinarrizko ekarpenak

Autore desberdinen arabera hainbat oinarritatik abiatzen da Ikaskide Taldeenganako interesa. Aspektu positibo eta negatiboekin sartu aurretik, hasteko, printza batzuk aipa litezke:

- Ikasleek elkarrenganako interesa sentitzen dute, eta ona da interes hori ikasketa-helburuak betetzeko bideratzea.
- Elkar-eragitea bilatzen dute Ikaskide Taldeek eta, labur esateko, honek onurak dakartza bai ikaslearen psikologi-garapenean eta bai ikasketetan ere.
- Ikasketa indibidualistan ez dago beste ikaskideekiko eraginik, eta ikasketa lehiakorrean, beste ikaskideekiko harremanak ere lehiatzekoak izan daitezke. *Ikaskidetzan* ikasleak elkarrekin lotuta daude eta helburuak elkarrekin lortu behar dituzte. Beraz, ezagutzak elkarbanatzen dituzte.

3.1. Aspektu positiboak

Hainbat autorek aspektu positibo ezberdinak eranstean dizkiote Ikaskide Taldeen metodologiari. Nolabait ordenatzeko, 4 multzo handitan banatu ditugu eragin positibo hauek:

a) Ikasgaia aberastearen ingurukoak

- Errendimendu akademiko edo kongitiboa hobetzea: erretentzioa, pentsamendu konplexua.
- Informazio eta ezagutzen batura handiagoa, banaka ibilita baino.
- Ikuspegi desberdinen gama zabalagoa, egoera edo arazo bati aurre egiteko.
- Irakaslearen informazioa ikasleen arteko hizkera hurbilagora ekartzeko aukera sortzen da taldean, eta hala, irakaslearekin zailtasunak dituztenek probetxu atera dezakete. Azaltzen ari denak ere ikasi egiten du bere pentsamentua antolatu eta azaltzen.
- Zalantzak argitzeko eta laguntza eskatzeko giro aproposagoa sortzen da.

Interesgarria iruditu zait testu batean bilatu dudan banaketa maila kognitibo ezberdineko ikasleentzat dituen onurekin:

- Gaitasun gutxienekoentzat edo atzerapen kognitibo handiena dutenentzat: aukera berriak irekitzen ditu ikasteko, taldekoen azalpen egokituen bidez; bestalde, taldean onartua izatean autestima igo egiten da eta, hortik, baita motibazioa ere.
- Erdi mailakoentzat, taldeko eztabaidak, lan indibidualak eta elkarjartzeak, etengabe beren jakintzetan desorekatze eta orekatze berriak sortzen ditu eta aurreratzen laguntzen die.
- Maila kognitibo handienekoentzat egoera konplexuagoa da, ez dutelako desoreka kognitibo berririk izateko horrenbeste aukera. Baina positiboa da: besteei azaltzeak beren ezagutzak finkatzeko, egituratzeko eta agertarazten ikasteko lagungarri baita. Bestetik, kognitiboki atzeratuagoak dauden ikasleak beste gaitasun batzuetan hobeak izan daitezkeelako, eta hala, lehenari galdera, aukera eta irtenbide berriak sortu dakizkioke.

b) Ikaslea ikasketekiko atxikituago egotearen ingurukoak

- Identifikazioa gehitzea, gaitasun, jarrera eta informazioak zuzenean ikasiz.
- Erabakiak hobeto ulertzea, iritziak entzunda aldeko eta kontrako argudio gehiagoren jabe dela.
- Interesa gehitzea
- Azken erabakia hobeto onartzea.
- Erantzunkizuna gehitzea.
- Bat-bateko gratifikazioa.
- Azken batean, motibazio gehitzea, beren ahalegina zuzenago bizi dutelako.

c) Ikaslearen nortasuna garatzearen ingurukoak

- Autonomia garatzea (besteei lagundu ala ez erabakiz).

- Autoestima lantzea
- Nork bere nortasun soziala eraikitzen laguntzea.
- Baliabide psikologikoak lantzea.

d) Konpetzentzia eta jarrera sozialak hobetzearen ingurukoak

- Jokaera soziala praktikatzeko aukerak ematea (laguntzea, elkarbanatzea...).
- Arazoak eta egoerak beste ikuspegi batetik ikusten ikastea, egozentrismotik ateraz.
- Ikaslea ohartzen da bere arrakasta besteenari lotuta dagoela, eta horretarako bere ahaleginak koordinatu behar dituela.
- Besteen eragina jasotzeko irekitasuna lantzen du, eta baita besteengan eragitekoa ere.
- Laguntzeko praktika egiten da, elkarri informazioa, materiala eta abar emanaz.
- Onura komunak motibatzen ditu taldekideak.
- Ikasleen arteko aniztasuna (sexu, arraza, jatorri...) hobeto onartzen laguntzen du.
- Beste pertsonen ezagutzan sakontzen laguntzen du.

3.2. Aspektu negatiboak

a) Geldotasunaren ingurukoak

- Eduki gutxiago lantzea, abiadura galtzeagatik.
- Geldotasuna eta kostua gehitzea.
- Irakaslearentzat lan gehiago ekartzea.
- Irakaslearen kontrola gutxitzea.

b) Ikasleen erresitentzia, metodoaren berritasun eta erantzunkizun eskariagatik.

c) Talde dinamikaren arazoak

- Erantzunkizuna galtzea, ‘jabe askoren astoa goseak hil’.
- Ikasle batzuen jokaera alper eta parasitarioari aukerak ematea.
- Nibelazio efektua, gaitasun handienekoen konformismoa bultzatuz batazbesteko mailara mugatzea.
- Gaitasun handikoen erresumina gaitasun txikikoenganako.
- Erradikalizazioa, eztabaidaren polarizazioaren polarizazioa, negatibismoa (ezadostasun batek sortutako jarrera ukatzailea).
- Dominazio indibiduala, edota argudioak errepikatzean burugogorrena gailentzea.

IKASKIDE TALDEAK: ZEINTZUK DIRA HELBURUAK?

Aurreko kapituluan Ikaskide taldeen aldeko apustua egitearen zenbait arrazoi aipatu ditugu; orain da unea arrazoi hauek gertutik aztertzeko, lan honekin garbiago izango baitugu zeintzuk diren Ikaskide taldearen helburuak. Helburu hauek garbi dauzkagun heinean, hobeto ulertuko ditugu geroxeago proposatzen diren ezaugarriak; eta, modu honetan, errazago izango da baliabide metodologiko hau gure gelako jardueran eraginkortasunez martxan jartzea.

Arrazoiak eta helburuak:

--- **“Ikasleak etorkizuneko lan profesionalean lankidetzarako prestatzea helburutzat izanik, prestakuntzarik onena ikasketa ere lankidetzan egitea delako”**: Lankidetzarako jarrera lankidetzan arituz ikasten da, ikasketa hau ezin baita izan ikasketa teorikoa; dakigunez, baloreak eguneroko praktikaren errepikapenez eta norberak biziz ikasten eta geureganatzen ditugu.

Arrazoi hau ikusirik, beraz, gure helburuetan lehentasunezkoa, Ikaskide Taldeen bitartez, ikasleak **beste ikaskideei laguntzen ikastea** izango da.

--- **“Oro har ikasketa prozesuko eduki eta gaitasunentzat eraginkorra dela uste dugulako”**: Hainbat pedagogok (Piaget, Vygotsky...) esaten duten bezala, apendizaiak gure inguruko pertsonekin harremanetan eraikitzen dugu; hau da, lagungarria egiten zaigu besteekin alderaketa kognitiboa egitea, gure eskema mentalaren errebisioa, birplanteamendua eta egitura berriak egin ahal izateko.

Eta hala, ikasleak Ikaskide taldeetan aritzean euren ikasketa esanguratsua lortzea litzateke bigarren helburua, hala nola: **ikasgaiaren ezagutza maila indartzea, bereganatzea eta, honekin batera, gaitasun teknikoak lortzea.**

--- **“Ikasketa prozesuan txertatu nahi ditugun hainbat gaitasun (etorkizuneko lan profesionaleko beharrezkoak direnak) Ikaskide taldeen bidez lantzen ditugulako”**: Gure titulazioak perfiatuta ditugun moduari erreparatuz, esan dezakegu etorkizuneko lanpostuetan egoki aritzeko, gure ikasleek ez dutela soilik gaitasun edo “konpetentzi” tekniko beharra, izan ere, **gaitasun pertsonalak eta partizipatiboak lantzea** gaitasun teknikoa bezain garrantzitsua baita. Gaitasun partizipatibo eta pertsonalak, besteak beste, hauek izango lirateke: besteekin komunikatzea, taldeak gidatzea, partizipaziorako bideak egituratzea, gatazkei irtenbideak ematea, entzuten jakitea, erabakiak hartzea, erantzukizun edo konpromisoa betetzea...

Aurrean daukagun lana handia bezain erakargarria da, beraz, ez dugu aitzakiarik horretan ez hasteko.

II.2. EZAUGARRIAK/BALDINTZAK

Ikaskide taldeak martxan jartzea estrategia metodologiko aberasgarria bezain konplexua da. Garbi izan behar dugu beti Ikaskide taldeek hemen azaltzen ditugun ezaugarriak bete behar dituztela, normalki lan-talde arruntetik bereiztu ahal izateko. Bestela, ezaugarri hauek betetzen ez badira, aurreko atalean ikusitako ekarpenak edo alderdi positiboak ez dira gauzatuko.

Aztertuko ditugun ezaugarriak, Johnson (1994), Kagan (1994) eta Cohen (1994) egileen teorian oinarrituta daude. Hauexek dira:

1.- Negoziaketa edo Komunikazio irekia

Irakasle-ikasle eta ikasle-ikasleen arteko komunikazioa oso alderdi garrantzitsua da. Kasuaren arabera (adina, ikasleen heldutasun maila...) Ikaskide Taldeak aurrera eramateko erari buruzko negoziazioa egon daiteke ala ez; hori bai, beti ezinbestekoa da hasiera-hasieratik oso komunikazio garbia izatea alderdi hauen inguruan:

a.- **helburuekiko:** zer nahi dugu lortu? Ikaskide taldeen kasuan oso garbi geratu behar da ikastea eta giza-trebetasunak garatzea direla helburuak.

Ikasleekin hitz egin eta hausnartu behar da horri buruz.

b.- **zereginarekiko:** zer egin behar da? Irakasleak garbi utzi behar ditu egin beharrekoak eta, ardura desberdinak badaude, hauen berri eman ikasleei lanok banatu ahal izateko.

c.- **metodologiarekiko:** Ikaskide Taldeek normalean oso egitura zehatza izaten dute eta, batzuetan, konplexu samarra gerta daiteke hauek aurrera eramatea. Zeintzuk diren eman beharreko pausuak eta zein helbururekin azaldu behar da; dena den, hainbat

talderekin beharrezkoa izango zaigu teknika zehatz hauek taldearen baldintzetara moldatzea.

2.- Zeregina denona da

Ikaskide guztiek helburu berbera izan behar dute Ikaskide Taldeetan: denon partizipazioaz ekoizpena lortzea. Ikasle guztiei partehartzeko aukera emateko, irakasleak ikaskuntzaren egitura planifikatu behar du, eta hau lortuko du aurrerago aztertuko ditugun teknikak erabiliaz.

3.- Kooperazio trebetasunetan entrenamendua

Ikaskide Taldeak bide arrakastatsutik joateko, ezinbestekoa egiten da horretarako beharrezkoak diren giza-trebetasunetan entrenamendua izatea, hau da, “azken ekoizpen inportantea” eskatu baino lehen, ikasleek kooperazio egoeretan trebatzea eta esperientziak izan. Entrenamendu hau progresiboa izan daiteke (Fred Freundlich, 1999) eta bi ikuspegitik planteatuta:

- a.- Taldeetan eta elkarlanean zereginak betetzen ohitura hartzen joatearen ikuspegia:
 - helburu sinpleetatik hasita
 - taldekide ezagunekin, kopuru txikiarekin proposatuz taldeak
 - elkarren arteko dependentzia baxua izaten egituratu taldeak
 - ekoizpen oso zehatza eskatu eta lorpenerako bideak eman

- b.- Ikaskide Taldeetan aritzearen garrantziaz jabetzen joatearen ikuspegia. Horretarako, ikasgai desberdinetatik (psikologia edo pedagogia gaietatik bereziki) zeregin desberdinak planteatuko zaizkie ikasleei, adibidez:

--- taldeak behatu
--- taldearen prozesuaren ebaluaziorako pausoak ezagutu, praktikatu, tresnak eman...

Bi alderdi hauen azpitik inplizitua dagoena da: **TALDEAN LAN EGITEN IKASTEN DEN ZERBAIT DA, ETA APRENDIZAIA HONEK BERE DENBORA BEHAR DU.**

4.- Elkardependentzia positiboa

Ikasleak, norberaren helburuak lortu ahal izateko (ikasi eta nota jaso), besteek egiten dutenaren beharra du; hau da, elkarren arteko dependentzia dago. Eta positiboa dela esaten dugu zerbait positiboa, emankorra (harremana) lortzen delako eta ekoizpen bati lotuta dagoelako (azken emaitza)

Elkardependentzia hori oso bide desberdinetatik sor dezakegu, hona hemen gehien erabiltzen direnak :

--- Emaitzen bidez: Garrantzitsuena azken emaitza, ekoizpena da, eta honen ebaluazioa egiten da, baina horrela ez dugu ziurtatzen denon arteko harremana. (Elkardependentzia txikia da)

--- Zereginaren egituraren bidez: Ikasle batek egiten duena beharrezkoa zaie besteei, eta besteek egiten dutena, beharrezkoa zaio berari. Irakasleak teknika zehatz bati jarraituko dio ziurtatzeko ikasleen arteko harremana eta ezagutzaren elkartrukea beharrezkoa zaiela azken ekoizpena lortzeko. (Elkardependentzia handia da) Adibideak “Ikaskide Taldeen Teknikak” kapituluan ikus daitezke.

5.- Pertsona eta Taldearen arteko elkarrekintza

Aurreko ezaugarriekin guztiz lotuta dago: banakako zeregina eta ardurak egituratuta daude Ikaskide taldeetan eta bideak ezarriko dira hauek taldearen azken zereginarekin lotzeko. Bestela esanda, banakako

erantzukizuna ez da taldean “diluitzen”, alderantziz, gehiago potentziatzen da eta taldea indartzen du.

Ebaluazio momentuan ere, ezaugarri honek bere adierazpena har dezake: puntuazio bat taldeko ekoizpenagatik eta gehitu edo batezbestekoa egin banakakoarekin (banakako proba edo/eta behaketaren ondorioz).

6.- Autonomia

Autonomia, bereziki, bi alderditik landuko da:

a.- informazio iturriekin lotuta: oinarrizko baliabideak ikasleen eskura egongo dira, ondo identifikatuta. Baliabide osagarriak erabiltzea bultzatuko da; dena dela, iturri hauek erabiltzea taldearen ardura da.

b.- talde-gatazkak bideratzeko momentuan: Taldeetan gatazkak agertzen direnean, irakasleak bideak, estrategiak... proposa ditzake; hala ere, azken bideraketa (euron arteko negoziazioak, erabakiak) taldearena da.

7.- Ikaskuntzaren erregulazioa

Azken helburua da ikasleak bere buruaren ebaluazioa bultzatzea: bai akademikoki bai giza-trebetasun arloan.

Ebaluagai izango dira, beraz:

- azken emaitza: taldekoa zein banakakoa (ekoizpena: ikasi dutena)
- prozesua bera: prozesu honetan zehar garrantzitsua da ikaskuntza bera, erabiltzen diren baliabideak eta estrategiak, agertzen diren gatazkak bideratzeko moduak... Ikasleak hausnartu egin behar du alderdi hauen inguruan.

Ebaluatzeke era anitzak erabiliko dira prozesuan zehar zein prozesuaren bukaeran. Horretarako, tresnak sortu

beharko dira (idatzizko galdekizunak, aurrez aurreko elkarrizketak...) Aukerak izan daitezke:

--- Koebaluazioa : Ikasleak beste ikasleak edo taldea bera ebaluatzen du.

---Autoebaluazioa: Ikasleak bere eginkizun eta paperari buruzko hausnarketa egiten du.

--- Irakasleak eginiko ebaluazioa: Irakasleak, bere balorazioa egiten du eta horretarako kontutan hartzen du ikaslearen lana bere osotasunean harturik: ikasitakoa, harremanetan nola mugitu den, erantzukizun maila...

8.- Irakaslearen funtzioak

Baldin eta irakasleak gelan Ikaskide taldeak aurrera eramane nahi baditu, garbi izan behar du bere ohiko papera aldatuko dela, bereziki eremu hauetan:

--- Gelako dinamikan kontrolaren sentsazioa aldatzen da: ikasleei autonomia gehiago ematean, gerta daiteke nahasmen itxura hartzea klaseak. Irakasleak prest egon behar du hori onartzeko eta lehenetsunak beste alderdietan jartzeko (irakaslearen kontrola versus ikasleen autonomia).

--- Irakaslearen lan-tenporalizazioa eta dedikazioa aldatzen dira:

*saioen aurretik beharrezkoak izango diren baliabideak eta erabiliko den metodologia zehatz-mehatz prestatu behar dira (oinarrizko edukiak lantzen direla ziurtatzeko)

*prozesuan zehar egiten diren ebaluazioen (ikasleen koebaluaketa, autoebaluaketa...) jarraipena egin beharko da, ikasleei feedback-a eman...

*ebaluazio garaian koherentea izan hasierako printzipioekin: azken ekoizpena bezain garrantzitsu dira prozesua eta harremanak.

--- Ikaskide taldeak eratzea gela barruko ekintza bezala kontenplatu behar da, aurrez aurre egiten den zerbait izan behar da, helburua ikasle guztien partehartzea bada. Hau da, hainbat lan gelatik kanpo egiteko izan arren, oso garrantzitsua da ikasleak ikaskide taldeetan **gelan** aritzea, lehen aipatutako harremanaren alderdia landu eta baloratu ahal izateko.

II.3. TEKNIKAK

1. “JIGSAW” EDO BURUHAUSTE TEKNIKA:

6 laguneko taldeak. Ikasteko materiala taldekide guztien artean zatitzen du irakasleak.

Ikasle bakoitzak bakarka ikasten eta prestatzen du bere zatia.

Zati berdineko talde ezberdineko espezialistak biltzen dira beren zatiaz mintzatzeko.

Taldetan biltzen dira eta partaide bakoitzak dagokion zatia azaltzen du.

2. “STUDENT TEAM LEARNING” TEKNIKA:

(6.metodoaren antzerakoa)

a) Student-Teams-Achievement Divisions (STAD):

(heziketa maila guztientzat)

Irakasleak material akademikoa ikasgaitan banatuta azaltzen du.

Taldeko ikasleek batera ikasten dute 4-5 pertsona heterogeneoko taldeetan, partaide guztiek ikasgaia bereganatu arte.

Bakarkako azterketa \Rightarrow bakarkako kalifikazioa (azterketaren emaitza aurreko kalifikazioekin alderatzen da:

berdina+hobea=talderako puntuak=taldearen saria)

b) Teams-Games-Tournament (TGT): (heziketa maila guztientzat)

Ikasleak taldetan banatuak daude eta partaide bakoitza beste taldeetako maila bereko ikasleekin elkartzen da astero txapelketa akademikoetan. Txapelketa hauetako emaitzen arabera taldekideek beren taldearen puntuazioa jasotzen lagundu dezakete ala ez.

c) Team Assisted Individuation: (Bereziki 3-5 mailetan Matematika irakasteari zuzendua):

Ikasketa kooperatiboa eta bakarkakoa konbinatzen dira.

Maila beretsuko talde egokiak eratzeko, ikasleei matematikako proba bat egiten zaien hasieran.

Bakarkako irakaskuntza nork bere erritmoan.

Talde lana: ikasle bakoitzak bakarka lan egiten du eta bere emaitzak beste taldekideekin alderatzen ditu; behar izanez gero laguntza eskatuko die taldekide nahiz irakasleari.

Ikasle bakoitzak bere taldeko puntuazioan laguntzeko hainbat erantzun zuzen lortu beharko ditu. Horrela, astero taldeko partaide bakoitzaren puntuak gehitzen dira \Rightarrow sariak lortuko ditu, ala ez.

d) "Cooperative Integrated Reading and Composition" (CIRC):

Oinarrizko irakaskuntzako goi-mailetan irakurtzen eta idazten irakasteko programa ulergarria eta sekuentzializatua:

Irakaslearen instrukzioa

Praktika taldeetan

Aurrebaluazioa

Azterketa

Irakasleak talde batekin lan egiten duen bitartean, beste ikasleak bikoteka lan egiten dute ariketa desberdinetan.

3. LEARNING TOGETHER: (pausuak):

Unitate bat aukeratu

Honako erabakiak hartzea eskatzen du:

*taldean behar den partaide-kopurua

*taldeko partaideak (talde heterogeneoak hobeto)

*taldeen espazio-antolaketa gela barruan

*lanaren banaketa orekatua: taldeki bakoitzak bere zeregina

Talde lana: eztabaidak,...

Irakasleak taldeak gainbegiratzea, prozesuan jarraitzeko eta eta laguntzeko

Metodoaren azken erabilpenetan bakoitzaren ardura gehitzeko teknikari azterketa indibiduala txertatu zaio; taldekide guztien azterketa honen puntuazioaren batz-bestekoarekin taldearen media lortzen da.

4. "GROUP INVESTIGATION":

Gelaren antolaketa orokorrerako teknika da. Beronetan talde bakoitzak (2-6 pertsonakoak) ikasturtean ikasi beharreko unitate bat aukeratzen dute.

Talde bakoitzak aukeraturiko unitatearen talde-txostena prestatzen du.

Txosten horren aurkezpena egiten die taldeak beste gelako taldeei

5. CO-OP CO-OP:

Motibazioa pizteko eztabaida batetik abiatzen da

Talde heterogeneoak sortzen dira

Taldea sortu bitartean, kooperazio eta komunikazioaren inguruko trebetasunak lantzen dituzte

Taldeak aztertuko duen gaia aukeratzen da eta beste taldeko lanarekin gaiaren osotasuna lortuko da. Taldekoek gaia azpigaietan banatzen dute eta hauek ere osotasuna bilatzen dute

Ikasle bakoitzak azpigai bat aztertzen du, horretan espezialista bihurtuko da, eta bere kabuz materiala aukeratu eta antolatu beharko du.

Ikasle bakoitzak azaltzen du bere azpigai taldean eta, denak aurkeztu direnean, hauen arteko lotura posibleak egiten dituzte elkarrekin.

Taldeak gela osoaren aurrean emango duen aurkezpena prestatzen du

Ebaluazioa:

*Taldeari egindako bakarkako aurkezpenak
(taldeko kideek)

*Taldeak klaseari egindako aurkezpenak
(klaseak)

*Bakarkako lana (irakasleak)

6. “SCRIPTED COOPERATION” (Kooperazio gidatua):

Bi pertsonako taldeak:

*ikasketa kooperatiboaren ezaugarriak errazago identifikatzeko

*lehiakortasuna saihesteko (ebitatzeko)

Informazioa prozesatzeko ariketetan oinarritzen da, bereziki testuen prozesatzeko:

*Irakasleak testua ataletan zatitzen du

*Kide biek testuaren lehen atala irakurtzen dute

*A-k testua begiratu gabe informazioa errepikatzen du
(Ikasle papera)

*B-k feedback-a ematen dio testuari begiratu gabe
(irakasle papera)

*Biek informazioarekin lan egiten dute: aurrezagutzak komentatuz, testuko informazioa erlazionatuz,...Eta testuaren informazioa bereganatuz

*Testuaren bigarren atala irakurtzen dute biek

*Lehen atalarekin eginiko berbera egiten dute baina paperak trukatur

*Modu honetan jarraitzen dute testuaren atal guztiekin, harik eta amaitu arte

7. “TEKNIKA KONBINATUA”:

Teknika honen helburua zera da: bakarkako lana, kooperatiboa eta konpetitiboa egoki erabiltzea:

Sortu talde heterogeneo kooperatiboak

Taldekide bakoitzari taldean lortu beharreko ikasketa totaleko esleipena (asignazio) eman. Adib: 4ko talde bati 32 hitz ematen zaizkio ikasteko eta taldekide bakoitzak bere kideei erakutsi beharreko 8 hitz ikasi behar ditu

Egin ikasi beharreko materialaren esleipen kooperatiboa. Adib. 32 hitzak ikasi dituzten konprobatzea eta istorio bat asmatzea hitzok erabiliz

Antolatu ikasleen artean ikasi duten materialaren txapelketa. Adib: 32 hitzen inguruan

Prestatu test bat bakarkako errendimendurako (32 hitzei buruz) eta talde puntuaketarako baloratu taldekide guztien zeregina.

II.4. EBALUAZIOA

ZER DA EBALUATZEA?

Aurrez izendaturiko helburu batzuen arabera apendizaiia bat baloratzea.

NOIZ BALORATU?

Talde lana egin
aurretik

Talde lana egin
bitartean

talde lana egin
ondoren

NOR EBALUATU?

Gizabanakoa

taldea

biak

	GIZABANAK OA	TALDEA	BIAK
AURRETIK	Aurrez dakiena neurtzeko	Gizabanakoak dakiena konpartitu eta abiapuntua bateratu	Bakoitzak dakiena aurrez definitu, ondoren taldearen abiapuntua zehaztu
BITARTEAN	Ikaslearen garapen hurbileko eremua zehazten laguntzen du	Ezinbestekoa lanak iraupen luzea badu Lana atalka estrukturatuta egon behar du Aprendizaia aurrera doala ziurtatzen du	Ezkerreko biak
ONDOREN	Ikaslearen nota bakar honek taldearekin	Talde osorako nota bat. Ikasle	Ikasleak berak dakiena eta taldeak dakiena

	aurreratu duena ere ematen du; gerta daiteke ordea, taldearekin ezez ez aurreratzea,ez baitu zehazten.	bakoitzak taldeari eman diona ezkutuan gelditzen da.	ikasle guztien ekarpenei esker.
--	---	---	---------------------------------------

Aukera gomendagarriena hirugarren zutabekoa da.
Clemente Lobato-ren ustez, aprendizairako motibagarriena ere
bada.

ZER EBALUATU?

Helburuak lortzen ari diren edo zer neurritan lortu diren:

Helburuak

Zer ebaluatu?

Partaide bakoitzak ahal duen guztia ikastea, bere kabuz eta taldekideek lagunduta

Eduki kontzeptualak eta eduki prozedimentalak

Partaideak, taldearen dinamika egokirako jarrera eta trebetasunak garatzea

Eduki aktitudinalak

NOLA EBALUATU?

Eduki kontzeptualak eta prozedimentalak neurtzeko asko idatzi den arren (azterketak...), ez da gauza bera gertatzen eduki aktitudinalekin. Azken hauen neurketarako ohar hauek txertatu ditut:

- Ikaskide taldean dagoen dinamika neurtzeko ariketa neutroak egitea da egokiena. Ikasgaien ematen diren edukiak oso neurgarriak izatea ere laguntzen du .
- Jarrerak baloratzeak gida bat eraikitzearen funtzioa izan beharko luke, ez da horrenbeste nota bera.

Hala ere, notak balorazio positibo bat izan beharko luke “plus” edo portzentai bat: alde batetik ,gizabanakoaren notan ,bere jarrera baikorra izan bada; eta, bestalde, taldearen notan, ondo funtzionatuz gain helburuak lortzen lagundu badu.

- Jarrerak neurtzeko ohiko estrategiak hauek izango lirateke:
 - .Sareta edo parrilak: galdera ireki edo itxiez osatuta
 - .Kontrol zerrendak edo egunkariak: gertaeren zerrendatze edo kontaketa deskriptiboa.
 - . Ikusentzunezko baliabideak erabiltzea: bideoa...

- Autoebaluaketa izango da abiapuntua, horretarako ikasleak aurrez entrenatuta egotea gomendatzen den arren. Honi irakasleak bere behaketak gehituko lizkioke.

III. ADIBIDEAK ETA HAUEN INGURUKO HAUSNARKETA

III.1. IKASKIDE TALDEAREN INPLEMENTAZIOA HAUR HEZKUNTZAKO MATEMATIKAREN DIDAKTIKA ARLOAN

Jarraian aurkezten da 99/00 ikasturtean izan den esperientzia ikaskide taldearen metodologiaren inguruan, Irakasletzako Haur Hezkuntza espezialitateko 3. mailako taldearekin. Esperientzia *Matematikaren didaktika Haur Hezkuntzan* izeneko jakintzagaian aplikatu da.

Hogeita zortzi ikaslek parte hartu dute esperientzian. Aipatu ikasturtearen, bigarren lauhilabetean gauzatu da esperientzia, hau da: martxotik ekainera bitartean.

Esperientzia martxan jartzeko ipini diren baldintzak azaldu aurretik ondorengo premisa hauek kontuan hartzea komenigarria da:

- a. Parte hartu duten ikasleek ez zuten inongo prestakuntzarik ikaskide taldearen metodologia edo tekniken inguruan.
- b. Hirugarren mailan lantzen den *matematikaren didaktika* jakintzagaia bigarren mailako *pentsamendu matematikoa* arloaren jarraipen modura planteatuta dago. Beraz, ikasleek haur hezkuntzan lantzen den matematikari buruz oinarri onargarria zutela esan daiteke.
- c. Jakintzagaiak 4'5 kreditu ditu, beraz, denbora horretan egin dira egin beharreko lan guztiak.

Ondorengo taulan laburtzen da ikaskide metodoek kontuan hartu behar dituzten baldintzak nola egokitu diren esperientzi honetara.

KONTUAN HARTZEKOAK	ZHAZTAPENAK
-------------------------------	--------------------

KONTUAN HARTZEKOAK	ZEHAZTAPENAK
<p>1. Helburuak zehaztea</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Helburu akademikoak: <ul style="list-style-type: none"> - Haur Hezkuntzako matematika esparruko helburu zein edukiak ezagutzea eta interpretatzea. - Matematika arloa lantzeko egin diren proposamen batzuk ezagutzea eta honen inguruan hausnarketa egitea. - Hiruhilabete baten programazioa egitea eta horretarako behar diren euskarriak sortzea (fitxak, jolasak, aktibitateak,..). - Kolaborazio, kooperazio helburuak: <ul style="list-style-type: none"> - Programaketaren planifikazioan parte aktiboa izatea. - Taldeetan kontsentsua bilatzeko eta erabakiak hartzeko gaitasuna lantzea. - Norberaren eta besteen ekarpenak baloratzea. - Gauzatu behar diren lanetan elkarri laguntzea.
<p>2. Taldearen tamaina erabakitzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Lau ikaslez osaturiko taldeak egingo dira. Taldekide bakoitzak matematika arloko atal baten ardura izango du (logika, aritmetika, neurria, geometria/topologia).
<p>3. Ikasleen banaketa taldean</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Elkarrekin adostuko dira taldeak osatzeko irizpideak. - Irakasleak talde bakoitzaren jarraipena egingo du etengabe, elkarrizketak edo inkestak eginez. - Irakasleak beharrezkoa ikusten badu, taldeak

KONTUAN HARTZEKOAK	ZEHAZTAPENAK
	berrantolatu egingo dira.
4. Gelaren antolamendua.	<ul style="list-style-type: none"> - Elkarrengandik hurbil egongo dira taldekideak. - Espazio bat sortu eta antolatuko da, egingo diren lanak edo jasoko den informazioa biltzeko. - Bi egun erabiliko dira (astelehena eta asteartea) talde-lanak egiteko. Beste saio bat, berriz, (asteazkena) teorizazioa, argibideak eta aholkuak emateko erabiliko da.
5. Elkar-menpenpekotasuna ziurtatzeko ikas-materiala planifikatu.	<ul style="list-style-type: none"> - Materialen arteko elkar-menpekotasuna. - Banatu edo lortuko diren materialak (artikuluak, apunteak,..) guztiok erabili beharko dituzte. - Informazioaren arteko elkar-menpekotasuna. - Talde bakoitzak atal desberdinen ezagutza izan beharko du - Beste taldeekiko elkar-menpekotasuna. - Programazioa egiteko besteen proposamenak ezagutzea ezinbestekoa da. - Atal bakoitzaren arduradunak beste taldean ardura berbera duenarekin trukatu du informazioa.
6. Elkar-menpekotasuna ziurtatuko duten	<ul style="list-style-type: none"> - Talde bakoitzak asignatuko ditu: - Bozeramailea: taldearen ahotsa izango da,

KONTUAN HARTZEKOAK	ZEHAZTAPENAK
rol-ak definitu.	<ul style="list-style-type: none"> - Idazkaria: akta batean jasoko ditu taldeko jarduera guztiak. - Koordinatzailea: informazioaren antolaketaz arduratuko da. - Hiru astetik behin aldatuko dira karguak.
7. Lan akademikoa azaldu	<ul style="list-style-type: none"> - Ikasle bakoitzaren papera argitu: - Ikasle bakoitza, kurtso bukaeran txosten bat aurkeztuko dio irakasleari. Bertan, gaiari buruz egin dituen lan guztiak jasoko dira. - Hasieran eta kurtsoan zehar emango dira argibideak. - Helburuak ondo azaldu: - Kurtso hasieran argi utziko dira helburuak; hala ere, kurtsoan zehar birgogoratuko dira. - Prozedura eta kontzeptuak azaldu eta argitu: - Klaseko ordu batzuk honetarako erabiliko dira. - Galderen bidez, egoeraren diagnostiko bat egin: - Ebaluazio jarraikorra egingo da atal hau zaintzeko.
8. Xedeen elka-menpekotasun positiboa egituratu	<ul style="list-style-type: none"> - Lanen arteko erlazioak ondo azaldu behar zaizkie. Honetarako denbora eta espazioak zehaztuko dira.
9. Gizabanakoaren	<ul style="list-style-type: none"> - Irakasleak hau definitu eta jarraipenaz

KONTUAN HARTZEKOAK	ZHAZTAPENAK
ardura egituratu.	arduratuko da.
10. Taldeen arteko kooperazioa egituratu.	- Hobeto taldeen arteko kooperazioa, taldeen arteko konpetentzia baino.
11. Arrakasta kriterioak azaldu.	- Helburu zehatzak markatu beharko dira progresioaren aurrerapausuak neurtzeko. Irakasleak zehaztuko ditu, egin beharreko lanaren arabera.
12. Espero beharreko jarrerak zehaztu.	- Parte-hartzen animatu, besteek esaten dutena arretaz jarraitu, ideei kritikak egin,..
13. Ikasleen jarrerak gainbegiratu.	- Behaketa eta gizabanako zein taldeko inkestak erabiliko dira horretarako.
14. Lanean laguntza eskaini.	- Beharren arabera antolatuko dira laguntzak.
15. Kolaborazio trebetasunak irakasteko guneak definitu.	- Hauek ere, beharraren arabera antolatuko dira.
16. Lanari amaiera egokia topatu.	- Bakarkako txostena. - Lan-kolektiboa.
17. Aprendizaiaren kalitatea eta kantitatea	A. gizabanakoa ebaluatzeko: - tresnak: txostena, auto-ebaluazioa eta taldekideen ebaluazioa.

KONTUAN HARTZEKOAK	ZHAZTAPENAK
neurtu.	<ul style="list-style-type: none"> - Irizpideak: inplikazioa, norberaren ekarpenak, iturri ezberdinak erabiltzea, sakontasuna, zuzentasuna. <p>B. taldea ebaluatzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> - tresnak: auto-ebaluazioa, azken lana. - Irizpideak: sakontasuna, zuzentasuna, beste taldeen ekarpenak,
18. Taldeak nola funtzionatzen duen ebaluatu	<ul style="list-style-type: none"> - Taldeen behaketak taldearekin prozesatu egin behar dira, elkarrizketak eta inkestak bidez.

BALORAZIOA

Balorazioa egiterakoan zenbait aspektu kontenplatu behar dira, besteak beste: helburuak lortzea, ikasleen partizipazioa edo taldean izandako giroa. Balorazio kuantitatiboa egiteko aukera izan arren, dokumentu honen xedea zein den ikusirik balorazio kualitatiboa egingo da jarraian.

Esperientziaren amaieran esan daiteke:

- Ikasleek ulertu eta bizi egin dutela esperientzia kooperatibo batek daramatzen baldintza desberdinak.
- Ikasle gehienek begi onez ikusten dutela metodologia honen aukerak (ikasteko, harremanak sendotzeko,..), eta mugak (aplikatzeko, egokitzeko,..).
- Egin diren produkzioak (hamabostaldien diseinua) kalitate onekoak izan direla.
- Oro har ikasleek eta taldeek autonomia maila handiarekin aritu direla (bilerak konbokatze, aktak idazteko,..), irakaslearen beharra momentu askotan agertu arren (batez ere, informazioa bilatzeko, edo beraien proposamenak aztertze).

- Esperientziak ez dituela maila berean jarri kooperazio edo kolaborazio helburuak eta helburu akademikoak. Azken hauetara bideratu da gehien bat esperientzia.
- Metodologia kooperatiboaren inguruan formakuntza beharra ikusten dela

ERABILITAKO JARRAIPEN INKESTAK

Dokumentu honen Igo eranskinean biltzen dira erabili diren inkesta ereduak gizabanakoa eta taldeen zenbait aspektu baloratzeko.

III.2. HEZKUNTZA BEREZIA ADARREAN EGINIKO BI ESPERIENTZIA

1.- “group investigation” hezkuntza berezian:

- NON: H.B.3. mailan (60/50 ikasle). Arloa: “Adimen Urritasuna”
- NOIZ: 98 – 10 eta 99 - 11.
Gelako 5 saio: 2 informazio bilketarako eta taldean aritzeko; 3 aurkezpenak egiteko
- ZER: Gaia “Adimen Urritasunaren alderdi psikoebolutiboak” zen, hiru azpigaitan banaturik:
 - 1.- Kognizioa eta ikaskuntza
 - 2.- Hizkuntza eta komunikazioa
 - 3.- Nortasunezko alderdiak
- ZERTARAKO: Gai orokor hau landu eta ulertzeko, hau da, gero ebaluaketarako materia izango dena modu aktiboan ikasteko.
- NOLA: Gela fisikoki 3 mahai-multzotan antolaturik egonda, multzo bakoitzari zozketaz azpigai bat ematen zaio (irakasleak egindako eskema bat banatzen zaie ikasleei oinarri gisa), eta hiruko taldeak egiten dira.
Gelara eramandako bibliografiarekin, bi egunetan, irakasleak emandako eskema osatzen eta kontrastatzen aritzen dira ikasleak, euren aurkezpenerako lana prestatzen duten bitartean.
Aurkezpen egunean zozketa egin eta tokatzen zaion hirukoteak besteen aurrean aurkezpena egingo du. Beste ikasleek apunteak hartzen dituzte. Aurkezpena bukatu ondoren errepasso bat egiten da, azpigai hau landu duten taldeen artean irakasleak galderak egiten dituelarik, oinarrizko ideiak argi eta garbi uzteko.
Prozesu hau azpigai guztiekin errepikatzen da.

Irakasleak jasotzen ditu talde-lan guztietako ekoizpenak, egindako lanaren kalitatea aztertzeko eta talde guztien partizipazioa kontutan hartzeko.

Notarako, printzipioz, ez da kontutan hartzen.

- **BALORAZIOA:** Irakaslearen partetik, oso inpresio ona jasotzen da: ikasleen inplikazioa oso ona izan da eta asistentzia ere oso altua. Helburua gaira era partehartzailean hurbiltzea bazen, lortu da eta ondo.

Hobetzeko alderdiak: *Autoebaluaketa eta behaketarako tresnak diseinatu

*Aurkezpenaren teknika haiekin aurretik

landu

Ikasleen partetik, orokorrean gehiengoak oso positibotzat jotzen du, batez ere gaia prestatzearena (“aberasgarria”, “gehiago ikasten da”). Besteen aurrean hitz egitearena batzuentzat gogorra da.

2.- “co-op c0-0p/puzzle” konbinatua hezkuntza berezian:

- **NON:** H.B.3.mailan (60 ikasle/50 ikasle). Arloa: “Adimen Urritasuna”
- **NOIZ:** 99 – 4 eta 00 – 5. Guztira 9 saio:
 - 3 oinarrizko azalpenak + “espezialisten” taldeak
 - 3 taldean norberari dagokion gaia besteei azaltzeko
 - 3 idatzizko txostenak prestatzeko
- **ZER ETA ZERTARAKO:** Gaia “Autismoa” da, eta aurretik teorikoki zerbait landuta daukate. Orain helburua esku hartzeko (interbentziorako) alderdietan sakontzea da.

➤ NOLA: Bi hilabete lehenago ikasleei esango zaie joateko biltzen autismoaren inguruan topatzen duten materiala, esperientzietan oinarriturikoa bereziki.

1.- Autismoan esku hartzearen inguruko errebaso teoriko egingo da gelan, erronka berriak azpimarratuz eta jakin-mina estimulatuz.

2.- Taldeak hirukoak izango dira. Haien erabaki nor norekin (fakultatetik kanpo lan egin ahal izateko, komunikazioa handiagoa izateko...)

3.- Autismoren gaia 3 ataletan banatuko da eta hirukote bakoitzak erabaki behar du taldeko zeinek zer atal hartuko duen.

4.- Atal bakoitzaren ordezkari guztiak bosteko taldetan bilduko dira. Hauek izango dira “espezialisten” taldeak eta atalaren inguruan informazioa bildu, antolatu eta landu egingo dute.

5.- Ordezkariak euren jatorrizko hirukotera itzultzen dira, norberak bere atala beste biei azaltzeko; paperak trukutzen dira.

6.- Hirukoteak gai osoari buruzko lana elaboratzen du.

➤ BALORAZIOA: Irakaslearen partetik: 1. taldearekin oso balorazio positiboa egiten da: euren artean konpondu ziren materiala fotokopiatzeko, berriak ekartzeko, ekoizpenen kalitatea ona izan zen...

2. taldearekin, berriz, irakasleak lana erraztu arren (1.taldearekin konparatuz artikulu errazagoak eta 2 saio gehiago eman) ez da ikusi inongo autonomiarik ikasleen aldetik eta prozesuan zehar hainbat momentutan irakasle-ikasleen arteko tirabirak gertatu dira.

Ikasleen partetik, 1. taldearen balorazioa ona da eta iradokizunak agertzen dira pausu batzuekiko (kontutan hartu direnak 2. taldearendako); 2.taldean, berriz, iritzia ohiko sistemaren alde doa (klase magistralak eta apunteak).

III.3 BESTE ESPERIENZIA BAT.

TALDE KOOPERATIBOA LANTZEN **DOKUMENTU BAT ADOSTEN**

*Esperientziaren eguna: 1999ko urriko sei egunetan
(ordubeteko sei saiotan).*

Gaia: Euskal Herriko Errealitatea eta Hezkuntza

Maila: Irakasletza 1. Maila (talde handia)

Irakaslea: Iñigo Ramirez de Okariz Telleria

1. Gaia:

Iturri soziokulturalak Haur eta Lehen Hezkuntzako Oinarrizko Curriculum Diseinuetan: **ITURRI SOZIOKULTURALAK, EUSKAL HERRIKO EZAUGARRI ESPAZIAL, HISTORIKO ETA SOZIO-POLITIKOAK ETA ESKOLAREN EGOKITZEA ETA ERANTZUNA.**

2. Helburua:

Lan kooperatiboaren baliagarritasuna azpimarratuz, gure inguru hurbileko errealitate sozial eta kulturala aztertzea, interpretatzea eta, irakaskuntzarekin bat eginez, egokitzea.

3. Taldea:

Irakasletza. Lehen maila. Guztira: 75 bat ikasle.

4. Metodoa eta sekuentzia didaktikoa:

Helburuetan aipatzen dugun bezala, hiru eduki multzo azertu, garatu eta hausnartuko dira talde kooperatibotan:

- 1. Iturri soziokulturala (Talde-1).*
- 2. Euskal Herriko egoera espazial, historiko eta sozio-politiko (Talde-2).*
- 3. Eskolaren erantzuna (Talde-3).*

- Lehenik eta behin, irakasleak kontestualizatu ditu iturri soziokulturalak, transparentzia baten laguntzaz: zer diren, nondik datozen, zeintzuk diren iturri honen egileak, nola lantzen diren eskolan,... Hau garbi izan ondoren,...
- Talde osoa bi talde berdinetan banatu da. Bakoitza 35 bat partaiderekin.
- Talde batek Lehen Hezkuntzako eta besteak Haur Hezkuntzako iturri soziokulturalak aztertuko ditu.
- Talde bakoitza, irakurketa eta hausnarketa emankorragoa izan dadin, launako taldeetan antolatu da inongo irizpide barik, eurak une horretan aulkietan kokatuta zeuden arabera (albokoenak edo aurre-atzekoak).
Launako talde bakoitzean arduradun bat aukeratu da ondorioak-eta beste taldeetako arduradunekin kontrastatzeko.
- Iturri soziokulturala aztertzeko banatu zaie fotokopia multzo bat (3/4 orri). Esan zaie irakurtzeko eta ideia nagusiak jasotzeko eta idazteko. Azpimarratu zaie halaber, hobe dela batek irakurri –agian paragrafoka- eta ondoren denon artean emaitzak jasotzea. Ohitzeko esaldiak-eta azpimarratzen eta parrafoen alboetan ondorioak ateratzen.
- Klase batean (ordubete) aztertu dute dokumentua, ideia nagusiak azpimarratuz.
- Ondoren –beste klase batean-, gai bera aztertzen ari diren taldeetako arduradunak elkartu dira ordu erdi batean, talde desberdinak ateratako ondorioak kontrastatzeko eta dokumentu bakar bat adosteko.
- Bi taldeak dokumentu bakarra adosten dauden bitartean, gela beste hiru multzo handitan banatu da. Multzo batek–20ren bat-, aztertu du Euskal Herriko errealitate espaziala; beste batek, historikoa; eta, hirugarrenak, sozio-politikoak.
- Ondoren, multzo bakoitza zatituta dagoen taldeetatik bat aukeratu da beste taldeetako arduradunekin elkartu eta dokumentua adosten saiatzeko.
- Dokumentu guztiak adostu ondoren, taldeetan aukeratutakoek transparentzia batean jarri dituzte emaitzak

(irakasleak garbira pasatu ditu apunteak), eta gela osoari aurkeztu dizkiote ateratako ondorioak.

- Aurkezpen bakoitzean (iturri soziokulturalak alde batetik, eta Euskal Herriaren deskribapena bestetik), gelako ikasleak elkartu dira eta azaldutakoaren inguruan galdera batzuk prestatu dituzte.
- Jendearen galderak eta taldearen erantzunak entzun dira aurretik esandakoa borobiltzeko, argitzeko edo kritikatzeko.
- Iturri soziokulturalak zer diren eta Euskal Herriko deskribapen geografiko, historiko eta sozio-kulturala egin ondoren, zera galdetu diet: eta esandako hau guztiau nola aplikatu irakaskuntzan? Zer motatako ezaugarriak izan behar ditu eskola horrek? Zer motatako gaitasunak eskaini edo landu behar ditu?
- Hurrengo klasean, galdera hauek hausnartzen eta erantzunak bilatzen saiatuz, ondorioak idatzi zituzten. Hemen ere aurretik erabilitako metodologia bultzatu dugu. Alegia, talde handiak eta txikiak. Ondoren aurkezpena etorri da. Salbuespena, aurkezpena orain arte aurkeztu ez duen talderen batek egiten du, klase guztia pasatzen dela nolabait ziurtatuz.
- Hurrengo klase batean, irakasleak klase magistral bat eman du esandako guztia borobilduz eta zalantzak argitzen eta hutsuneak betetzen.
- Bukatzeko, Banco Santander-Endesak¹ subentzionatutako bideo bat (*Tiempo* aldizkariak Euskal Herriari buruz kaleratutako bideo bat) ikusi dugu. Ondoren, bideo horretan azaltzen den Euskal Herria eta guk landu duguna bera ote den ala ez komentatzen ibili gara.
- Ebaluaketarako txantiloia pasatu zaie. Zein den helburua azaldu ondoren, transparentzia baten bitartez, txantilo horretan azaltzen diren item desberdinak azaldu zaizkie.
- Irakaslea joan da dena koordinatzen, argitzen eta zenbait ideia zorrotzen.

¹ Descubrir. Gran enciclopedia audiovisual España. Geografía. Turismo. Arte. Gastronomía. País Vasco. Tiempo, Banco Santander-Endesa. 30 minutos.

5. Denbora:

Sei/zazpi klase ordubetekoak. Hiru ordu taldeka dokumentuak irakurri eta ideiak azpimarratzeko, eta bestea, ordezkariak elkartu eta emaitzak jendaurrean adierazteko. Ebaluaketa azaldu eta txantiloak jaso, berriz, ordu erdiko lana da.

6. Espazioa:

Gela.

7. Materiala:

Haur eta Lehen Hezkuntzako O.C.D.tik ateratako fotokopiak; transparentziagailua eta transparentziak, eta errotuladoreak. Banatutako apunteak. Bideoa eta testu liburuak (zaharrak eta berriak; kanpokoak eta bertakoak).

8. Ebaluaketa:

Ebaluaketa ere taldeka egin da.

Atal honen ondorioak hauek dira:

1. Erantzunen artean bitxia izan da jendeak adieraztea, helburuak garbi ez izatea eta zer egin behar zen ere ez jakitea talde lan hau planteatu zenean. Alegia, edo nik gaizki azaldu ditut nire nahiak, edo hain garbi ez izatearen arrazoia ez ote da izango, inongo testuinguru teorikorik ez dutenei, hain azkar horrelako planteamendu teorikoak azaltzea? Horrek adierazten du, beraz, agian ez dela une egokiena izan horrelako kontzeptuak planteatzeko, inoiz entzun ez dituzten kontzeptuak lantzeko.
2. Talde kooperatiboa ontzat hartu dute eta baita erabilitako irizpideak eta metodologia bera ere.
3. Taldekideen parte hartzea zabala izan da.
4. Irakaslearen informazioa eta jarraipena oso ondo ikusi da.
5. Materiala arrotza iruditu zaie. Emandako kontzeptuei buruz oinarririk ez dutenez, material eta azalpen argiagoak faltan izan dituzte.

9. Ondorioak:

- Euren aurrezagutzak ere landu direnez ariketa honetan, Euskal Herriko errealitateaz zein gutxi dakiten ere konturatu dira.

OHARRA: Dokumentu honen bigarren eranskinean aurki daitezke esperientziaren jarraipenerako erabili diren tresnak.

IV. ARTIKULUEN BILDUMA

- **LOPEZ CABALLERO, A (1997) *Cómo dirigir grupos con eficacia*. Ed. CCS . Madrid**

Artikulua: “Tener la idea clara de lo que es un grupo eficaz”

- **RUE, J. (1991) *El trabajo cooperativo* . Ed. Barcanova. Barcelona**

Artikulua: “La gestión social del aula”

- **OVEJERO, A (1990) *El aprendizaje cooperativo. Un análisis eficaz a la enseñanza tradicional* Ed. PPV Barcelona**

Artikulua: “Métodos de aprendizaje cooperativo”

- **TOLEDO MORALES, P. (1994) (Bordón aldizkaria , 46.zbkia)**

Artikulua: “Perspectivas teóricas acerca de los efectos del aprendizaje cooperativo en el rendimiento de los alumnos”.

- **FREUNDLICH, F. (2000) (HUHEZIKo Ikaskide Taldeei buruzko mintegia)**

Artikulua: “Abordar los escollos principales del aprendizaje en grupo”

- **LOBATO FRAILE, C. (1998) *Aprendizaje cooperativo en secundaria*. Ed. UPV. Donostia**

Artikulua: “Técnicas y recursos para el aprendizaje cooperativo en grupo”.

- **LOBATO FRAILE, C. (1998)** *Aprendizaje cooperativo en secundaria.*
Ed. UPV. Donostia

Artikulua: “Técnicas de observación”

- **SAINT-ARNAUD, Y. (1981)** *Participación y comunicación de grupos.*
Ed. ANAYA . Madrid

Artikulua: “La participación”

- **FREUNDLICH, F. (1998-1999)** *Cuestionario para la autoevaluación de la “competencias sociales de gestión” de los estudiantes de Humanidades-Empresa . Berak egindako galdekizuna*

V. BIBLIOGRAFIA

- Aronson, E. (1978): *The Jigsaw Classroom*, Beverly Hills, California, Sage Publications,
- Deutsch, M. (1949): "A Theory of Cooperation and Competition", *Human Relations* **2**,129-152.
- DeVries, D. y K. Edwards (1974): "Student Teams and Learning Games: Their Effects on Cross-Race and Cross-Sex Interaction", *Journal of Educational Psychology* **66**, 741-749.
- Dishon, D. y P. O'Leary (1984): *A Guidebook for Cooperative Learning*, Hohnes Beach, Florida, Learning Publications.
- Johnson, D. W. (1979): *Educational Psychology*, Englewood Cliffs, Nueva Jersey, Prentice-Hall. - (1991): *Human Relations and Your Career*, 32 ed., Englewood Cliffs, Nueva Jersey, Prentice-Hall.
- (1993): *Reaching Out Interpersonal Effectiveness and Self-Actualization*, 61 ed., Needham Heights, Massachusetts, Allyn & Bacon.
- Johnson, D. W. y F. Johnson (1994): *Joining Together. - Group Theory and Group Skills*, **5**,1 ed., Needham Heights, Massachusetts, Allyn & Bacon.
- Johnson, D. W. y R. Johnson (1989): *Cooperation and Competition. Theory and Research*, Edina, Minnesota, Interaction Book Company.
- (1991).- *Teaching Students To Be Peacemakers*, Edina, Minnesota, Interaction Book Company.
- (1992): *Creative Controversy. - Intellectual Challenge in the Classroom*, Edina, Minnesota, Interaction Book Company.
- (1993): *Leading the Cooperative School*, 2,1 ed., Edina, Minnesota, Interaction Book Company.
- (1975-1994): *Learning Together and Alone: Cooperative, Competitive, and Individualistic Learning*, Englewood Cliffs, Nueva Jersey, Prentice-Hall.
- Johnson, D. W., R. Johnson y E. Holubee (1983): *Circles of Learning* (video), Edina, Minnesota, Interaction Book Company.
- (1992): *Advanced Cooperative Learning*, Edina, Minnesota, Interaction Book Company.
- (1993). *Cooperation in the Classroom*, 6,1 ed., Edina, Minnesota, Interaction Book Company.
- Johnson, D. W., R. Johnson y K. Smith (1991), *Active Learning: Cooperation in the College Classroom*, Edina, Minnesota, Interaction Book Company.
- Johnson, R. y D. W. Johnson (1985): *Warm-ups, Grouping Strategies, and Group Activities*, Edina, Minnesota, Interaction Book Company.
- Kagan, S. (1988): *Cooperative Learning*, San Juan Capistrano, California, Resources for Teachers.
- Katzenbach, J. y D. Smith (1993): *The Wisdom of Teams*, Cambridge, Massachusetts, Harvard Business School Press.
- Kouzes, J. y B. Posner (1987): *The Leadership Challenge*, San Francisco, Jossey-Bass.

V. ERANSKINAK

Igo ERANSKINA:

IKASKIDE TALDEAREN INPLEMENTAZIOA HAUR HEZKUNTZAKO MATEMATIKAREN DIDAKTIKA ARLOAN: JARRAIPENA EGITEKO ERABILI DIREN TRESNAK

1. BUKAERAN PASATUTAKO INKESTAK

Ondorengo hiru aspektu hauek izan dira kurtso amaieran baloratu direnak: helburuak, giroa, partizipazioa.

Honez gain, ikasle bakoitzak autoebaluazio bat egin du jarraian aurkeztutako eredia erabiliz.

HELBURUAK

- Azpimarratu erantzun egokiena:

1. Taldeak, nire ustez, lanaren helburuak lortu ditu maila:
Hobezina Altua Tarteko Baxua
Hutsa

2. Nire ustez, hurrengo arrazoiengatik izan da:
(1: ezer ere ez; 2: gutxi; 3:nahiko; 4:aski; 5:asko)

- guztiok ulertu ditugu helburuak	1	2	3	4	5
- guztiok onartu genituen “	1	2	3	4	5
- gure interesak helburuen menpean jarri ditugu			1	2	3
4	5				
- kolaborazio eta konfiantzazko giroa egon da taldean	1	2	3		
4	5				

3. Taldeak helburuek lortu ahal izateko nire interesa eta ahalegina izan da:

Hobezina

Altua

Tartekoa Baxua

Hutsa

PARTIZIPAZIOA

Zure iritzia adierazten duen hitza azpimarratu

1. Oro har, nire ustez, taldekideek parte hartu dute bileratan

Behar bezala

Ez behar bezala

2. Partizipazioa oso bestelakoa izan da:

- batzuk asko hitz egin dutelako: BAI EZ

- beste batzuk oso gutxi: BAI EZ

3. Gaiaren inguruan zuzen eztabaidatu dugu: BAI EZ

- beste bide batzuetatik joateko joera izan dugu BAI EZ

3. Nire partizipazioa egin diren bileratan izan da:

Bikaina Ona

Tartekoa

Okerra

Oso okerra

4. Parte hartu dut nahi izan dudana bakoitzean

BAI EZ

GIROA

Aukeratu maila: 1: ezer ere ez; 2:gutxi; 3:nahiko; 4:aski; 5:asko

1. Gustura zaude taldean egin duzuen lanaren kalitatearekin?

1

2

3

4

5

2. Zure taldean denbora ondo aprobetxatu duzuelakoan zaude?

1 2 3 4 5

3. Parte hartu duzu taldean nahi izan duzun bakoitzean?

1 2 3 4 5

4. Izan da taldekiderik besteak menperatzen saiatu dena?

1 2 3 4 5

5. Izan da lan taldean parte hartu ez duen taldekiderik?

1 2 3 4 5

6. Taldean erabakiak hartu dira taldekide bakoitzak bere iritzia eman eta gero?

1 2 3 4 5

AUTOEBALUAZIOA :

IZENA:

Banatu 100 puntu ondorengo baieztapen hauen inguruan. Aukeran duzu: esaldi batzuei inongo puntuaziorik ez ematea; beste batzuei, berriz, puntu asko; esaldi guztien artean banatu; etab. Zuk zeuk erabaki!

1. Gaia zentratzeko baliagarriak diren galderak egiten ditut
....
2. Taldekideek azaldutako ideien inguruan arrazoiak eskatzen ditut
....
3. Dauden zalantzak argitzeko irtenbideak ematen ditut
....
4. Umorea erabiltzen dut giroa lasaitu nahian
....
5. Ideia berritzaileak bururatzen zaizkit
....
6. Kooperazioa adierazten dut
....
7. Besteen iritziak eskatzen ditut
....
8. Zure ideiak argi eta garbi adierazten ditut
....
9. Talde-eztabaidak aurrera egin dezaten laguntzak eskaintzen ditut
....
10. Parte-hartze handia dut, ia hitza monopolizatuz
....
11. Iritzi ezberdinak biltzeko ahaleginak egiten ditut
....

12. Gatazka egoeraten parte hartzen dut irtenbideak topatu nahian
13. Taldekide guztiak lanean inplikatzeko saiatzen naiz
14. Aspektu tekniko eta prozeduretan interesa adierazten dut
15. Erabakietan guztiok parte hartzen ahaleginak egiten ditut
16. Norbait hitz egiten dagoenean moztu egiten dut
17. Aurkeztutako ideiak edo gertakariak analizatzen ditut
18. Lekuz kanpoko komentarioak egiten ditut
19. Zehaztasunez eta argitasunez argudiatzen dut
20. Sarritan taldekideak gaitzetsi egiten ditut
21. Lortutako emaitzak sintetizatu eta laburbiltzen ditut
22. Besteen ekarpenak aintzat hartzen ditut
23. Lanean edo eztabaidetan ia parterik ez dut hartzen

2. ESPERIENTZIAREN TARTEAN EGINIKO INKESTAK:

Ondorengo ereduak erabili dira:

TALDEAREN AUTOEBALUAZIOA

IZENA:

Baloratu 1-tik 5-ra ondorengo jarrerak:

- Ziurtatu dugu guztiok lana ulertu eta ulertzen dugula.....
- Norbaitek bere iritzia ematerakoan arretaz entzun diogu.....
- Eztabaidatu dugu jarraitu beharreko metodoaren inguruan.....
- Banatu izan ditugu, aldika, ardura guztiak
- Konprobatu izan dugu guztiok ulertzen genituela arazo guztiak.....
- Ideiak eztabaidatu ditugu idatzi aurretik
- Gogor aritu gara lana argia eta txukuna izan dadin.....
- Idatzi zein aspektu hobetuko zenituzkeen lan taldean:

FEED-BACK: TALDE LANARI BURUZKO HAUSNARKETA

1. Nola sentitu zara orain arte eginiko talde lanean?

-
2. Zerk eragin du taldearen dinamika ona izateko?
 3. Zerk eragotzi du taldearen dinamika ona izatea?
 4. Zer eskaini du taldekide bakoitzak taldearen dinamika ona izateko?
 5. Zein ekintzak sortu dute arazoak taldean?
 6. Zein trebetasun behar dira talde kooperatiboetan?
 7. Zeintzuk jarduera-motak behar dira hurrengo saioetan?
 8. Zer nolako aginduak eman daitezke taldean honen eraginkortasuna ziurtatzeko?

FEDDBACK-a TALDE OSOAREKIN

Talde osoari luzatu zaizkien galderak hauek izan dira:

- Nola funtzionatzen duzue taldean?
- Talde-lanaren aspektu positiboak eta negatiboak aipatu.
- Proposamenak

Talde bakoitzarekin ordu erdiko solasaldia egin da erantzunak jaso ahal izateko.

II. ERANSKINA

TALDE KOOPERATIBOA LANTZEN DOKUMENTU BAT ADOSTEN

ONDORIOAK ATERATZEKO ERABILITAKO ERREMINTA ETA IRIZPIDEAK

ONDORIOAK ATERATZEN

<u>ados</u>	<u>guztiz ados</u>				<u>ez</u>
1. Ez nekien zer egin behar zen 5 6	1	2	3	4	
2. Helburuak ez zeuden garbi 5 6	1	2	3	4	
3. Taldeko partaide batzuk ez dute ezer eskaini 4 5 6		1	2	3	
4. Taldearen dinamika ona izan da 5 6	1	2	3	4	
5. Ez gara gauza izan ideiak-eta adosteko 4 5 6			1	2	3
6. Taldean parte hartu dut 6	1	2	3	4	5

7. Gustura nago ateratako emaitzekin	1	2	3	4
5 6				
8. Baliogarrtoa da talde-lan sistema hau	1	2	3	
4 5 6				
9. Ez du proposatutako helburuak lortzeko balio	1	2	3	
4 5 6				
10. Irakasleak ez du aholkurik eskaini	1	2	3	
4 5 6				
11. Material egokia izan dugu talde lanerako	1	2	3	
4 5 6				

Ebaluatu nahi dira:

A. TALDE KOOPERATIBOA:

1. BALIABIDE BEZALA.
2. JENDEAREN PARTAIDETZA.
3. EGOKITASUNA kasu honetan

B. ITURRI SOZIOKULTURALAK

1. LORTU DIREN HELBURUAK.